

IRURAKO UDALA

Iruran zaintza eredua eraikiz ikerketa beka. Oinarri zehatzak.

Udalak, 2024ko martxoaren 21ean egindako ez ohiko osoko bilkuran, honako oinarri zehatzak onartu zituen:

1. XEDEA eta LEGE ARAUDIA.

1.1 Oinarrien helburuak

Irurako Udaleko Berdintasun arloak Ikerketa beka bat egin nahi du, herrian egun zaintzaren arloa aztertu eta etorkizunera begira eraiki nahi den zaintza eredua definitzeko.

Definizio honen xede nagusia, egun herrian zaintza sistema egituratzen duten dimentsio guztiak aztertu eta hemendik abiatuta etorkizunera begira egongo diren beharrak aurreikusi eta guzti hauei erantzuteko eredu komunitario, sostengarri eta feminista eraikitzeko oinarriak finkatzea izango da.

Zaintzak oinarrizko lanak dira bizitza sostengatzeko. Denok behar dugu zainduak izan eta bizitzaren hainbat momentutan zaintzaile gara. Zaintza-kateek eusten diete gure familiari, gure komunitate hurbilari, gure jendarteari. Azken urte hauetan agerian geratu da indarrean dagoen zaintza sistemaren ahultasuna eta honek gure, gertukoekin zein ingurukoekin bizitzetan duen eragina. Horregatik kontsideratzen dugu beharrezkoa pausa bat egitea, gure testuingurua aztertu eta etorkizunera begira zaintza eredu-egitura bat eraiki ahal izateko estrategia pentsatzen eta eraikitzen hastea.

Horregatik Irurako Udalak beka honen bitartez zaintza arloak herrian bizi duen errealitatea ezagutu eta hemendik abiatuta etorkizunera begira eraiki beharreko zaintza eredua- egitura definitu eta finkatzeko irizpide nagusiak ezagutu nahi ditu.

- Gaur gaurkoz, Iruran zaintzari dagokionez herritar orok eskura dituen udal mailako baliabideen deskribapena eta hauen erabilpenaren inguruko analisia burutzea.
- Udal egituratik haratago herri mailan dauden baliabideen deskribapena egin.
- Zaintza arloan Irurako herritarrek egun dituzten beharren inguruko analisia (udalak dituen baliabideen erabilzaile direnak eta ez direnak kontuan hartuz).
- Genero ikuspegia aplikatuz herrian zaintza arloaren analisia burutzea.
- Zaintza arloan Irurako herritarrek egun dituzten bizipen eta esperientzien inguruko analisia.
- Iruran zaintza arloan berezkoak diren dimentsioak identifikatu.
- Etorkizunera begira Iruran zaintza mailan egongo diren behar nagusien definizioa.
- Zaintza mailan herrian egongo diren beharren identifikaziotik abiatuta, hauei erantzuna emateko gaitasuna izango duen zaintza eredu-egituraren nondik norakoak definitzea.

1.2. Aplikatu beharreko araudia

Beka honen arau markoa kontuan izango da, beraz, pertsona edo elkarte onuradunak aplikatzekoa zaion indarreko araudi guztia errespetatu beharko du, bereziki ondorengoak:

- Irurako Udalaren diru laguntzak arautzen dituen Ordenantza, 2021eko uztailaren 15ean GAO-n argitaratua; eta bere aldaketa 2023ko ekainaren 8an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua.
- 2022-2024rako Irurako diru laguntzen Plan Estrategikoa.
- Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean ezarritakoa.
- Uztailaren 21eko 887/2006 Errege dekretua.
- 3/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, emakumeen eta gizonen berdintasun eragingarriakoa.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testuategia.

2. AURREKONTUA.

Programa honen bidez deitutako bekaren zenbatekoa 5.000,00 eurokoa da, eta ondorengo diru atalaren kontura joango da: 1 0000.470.230.00.00 2024: Zaintza IKERKETA.

3. PARTE HARTZE BALDINTZAK.

- a) Beka, norbanakoek nahiz horretarako osatutako lantaldeek jaso ahal izango dute. Bigarren kasu honetan, (nortasun juridikorik gabeko pertsona fisikoen taldeak) ikerlanaren zuzendari arduradun bat izendatu beharko da.
- b) Beka jaso ahal izateko ezinbestekoa da giza zientzien alorreko unibertsitate gradua edo lizentziatura edukitzea. Taldeen kasuan, gutxienez erdiak bete beharko du baldintza hau. Ikerlanaren zuzendariak derrigorrez izan beharko du aipatutako titulazio hau.
- c) Irurako Plan Estrategikoa 2024-2034. Herritarren parte-hartzean oinarria izango duen eta Irurako etorkizuna irudikatzeko balioko duen hausnarketa-prozesuan parte-hartzea derrigorrezkoa izango da.
- d) Lanak jatorrizkoak, argitaratu gabea eta euskaraz sortuak izango dira.

Halaber, Irurako Ordenantza Orokorrean 14. Artikuluan zehazten diren baldintzak bete beharko dituzte.

Ezin izango dute dirulaguntzarik jaso, indarrean den araudiari jarraiki, eskubide hori mugatua edo ezabatua duten pertsonak edo erakundeak. Halaber, ezin izango dute diruz laguntzarik eskuratu

behin betiko ebazpen bidez eskubide hori galtzera zigortutakoek ere, edo Dirulaguntzen 38/2003 LegeOrokorrak 13.2 Artikuluan adierazitako beste edozein kasutan daudenak.

Berdintasunerako eta sexuagatik diskriminatua ez izateko eskubidea urratzeagatik administrazio-, lan-edo zigor arloko zehapenak jaso dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

Emakume edo gizonen arteko berdintasun printzipioaren aurkako helburuak, sarbide sistemak, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolaketa edo estatutuak dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoei.

Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko legearen testu bateginak eta Emakume eta gizonen benetako berdintasunari buruzko martxoaren 30eko 3/2007 Lege organikoan ezarritako betekizunak betetzen ez dituzten pertsona fisiko zein juridikoei.

Erakundeak, lekukotza judizialen bidez edo ziurtagiri bidez egiaztatu dezake onuradun izateko debekuetan sartuta ez dagoela. Agiri horiek eskuratu ezin direnean, horien ordeztu, erantzukizunpeko aitortpena aurkeztu daiteke.

4. AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA ETA AURKEZTEKO LEKUA.

Eskaerak Udaleko Egoitza Elektroikoan aurkeztu behar dira Udalak horretarako jarriko dituen eskaera orriak erabilita. Halaber, urriaren 1eko Administrazio Publikoaren Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipatzen dituen lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Beka eskuratzeko eskabideak deialdia egiten duen organoari zuzenduko zaizkio, eta onuradunak edo hori ordezkatzeko duen pertsonak sinatu beharko ditu; eta eskaerarekin batera, dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela. Egiaztapena ordeztu ahal izango da erantzukizun aitortpenarekin beti ere eskatzailea diru laguntzen udal ordenantzako 24.e. kasuetako batean baldin badago.

Lana nola burutuko den azaltzeko aurkeztu den proiektuak, ahalik eta zehatzen (15 orrialdekoa gehienez) honako atalak jaso beharko ditu:

- Izenburua.
- Aukeratutako gaiaren justifikazioa.
- Aurrekariak eta gaiaren gaur egungo egoera.
- Helburuak.
- Materialak eta metodologia, informazioa eskuratzeko iturriak.
- Aurreikusitako emaitzak eta horien interesa.
- Ikertzailearen edo ikertaldearen aurreko esperientzia.

5. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEAK.

Oinarri hauek Udalaren osoko bilkurak onartu ondoren DDBNera bidaliko dira, eta ondoren GAO-n argitaratuko dira. Argitaratzeaz gain, Irurako Udalaren web orrian emango da oinarrien eta

deialdiaren berri. Proiektuak aurkezteko epea GAO n argitaratu eta hurrengo egunean hasi eta hilabeteko epean amaituko da.

Modu ofizialean entregatu beharko dira, hau da:

.- Udaletxeko sarreran erregistro ofizialean aurkeztuta, horretarako eskaria bete eta sinatuta.

.- On-line, hau da, udaletxeko erregistro elektronikoa erabiliz: www.irura.eus

Eskaerak edo harekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioak akatsen bat baldin badu edo osatu gabe baldin badago, interesatuei hamar egun naturaleko epea emango zaie, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, hutsak konpon ditzaten. Epea amaitu eta akatsak konpondu ez badituzte, eskaera bertan behera utzitzat dutela joko da, eta prozedura artxibatu egingo da.

6. BESTE DIRULAGUNTZEKIN BATARAGARRITASUNA

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzak bateragarriak izango dira beste erakundeek xede bererako eman ditzaketen dirulaguntzekin, beti ere Irurako dirulaguntzen ordenantzan 8. Artikuluan finkatutakoari jarraiki.

7. EPAIMAHAIAREN OSAKETA ETA EGINBEHARRAK.

Osaketa: Epaimahaia Irurako arloko arduradun politikoa eta teknikoa izango dira:

- Irurako Berdintasun Arloko arduradun politikoa. Epaimahaiburua
- Irurako Gizarte Zerbitzuetako arduradun politikoa. Epaimahaikidea
- Irurako Gizarte Zerbitzuetako arduradun teknikoa. Epaimahaikidea
- Irurako Idazkari-Kontuhartzailea. Idazkaria.

Horietaz gain, aurkeztutako gaien inguruko pertsona adituen laguntza eta aholkularitza eska dezake epaimahaiak.

Egin beharreko lanak: jasotako eskaera guztiak aztertu eta haien artean bat aukeratu. Aurkeztutako lanek behar adinako kalitaterik ez dutela iritziz gero, dirulaguntza eman gabe utz dezakete epaimahaikoek.

Dirulaguntza Irurako Alkateak adjudikatuko du, epaimahaiaren proposamena jaso ondoren. Erabakia aurkeztu diren guztiei jakinaraziko zaie.

Epaimahaiaz gain, udaletik jarraipen batzorde bat osatuko da diagnostiko prozesu osoan zehar egon daitezken beharrak eta egokitzapenak bideratu ahal izateko. Zeharkakotasuna bermatze aldera, jarraipen batzorde honetan Alkatetzak hartuko du parte.

8. ESKABIDEAK BALORATZEKO IRIZPIDEAK.

Ondorengo irizpideen arabera:

IRIZPIDEAK	GEHINEZKO PUNTUAZIOA
Proiektuaren kalitate teknikoa (taldeen dinamizazioan esperientzia, datu bilketa kualitatiborako teknika berritzaileak, etab.)	20
Ikuspegi intersektzionala kontuan hartzen duten egitasmoak: adina, arraza, inmigrazioa, sexu eta genero identitatea, aniztasun funtzionala, pobrezia eta edo gizarte bazterketa.	5
Proiektuak genero ikuspegia izatea	10
Hizkuntza irizpideak	5
Ingurugiro irizpideak	5
Emakume elkarte batek aurkeztutako proiektua izatea	10
Emakumeen edo LGTBQ+ pertsonen jabekuntza xedea izatea	5
Salaketa eta aldarrikapen ekintzak	5
Emakumeen eskubideak, historia eta pentsamendu feminista hedatzea helburu duten proiektuak, baita emakumeen erreferentzia eta genealogia sortzen dutenak.	10
Ikuspegi eta xede hezkidetzaila duten jarduerak	10
Emakumeen kontrako indarkeria prebentzio eta erreparazio jarduerak	10
Berdintasunean gizonen parte hartzea sustatzen duten egitasmoak	5
PUNTUAK GUZTIRA	100

Diru-laguntza jasotzeko, aurkezten diren proiektuek gutxienez gehieneko puntuaziotik 50 puntu lortu beharko dituzte, aurreko irizpideen arabera.

Puntu gehien duen eskatzailea proposatuko da beka jasotzeko eta honek onartuko ez balu edo adierazitako merituak egiaztatuko ez balitu, hurrengoa proposatuko da. Hala ere, epaimahaiak bekarik ez emateko proposamena egin dezake, lanen kalitatea nahikoa ez dela uste badu.

9. BEKADUNAREN BETEBEHARRAK

- Diru-laguntza esleipena jakinarazten den egunean hasi eta ondorengo hamar egun balioduneko epean dirulaguntzaren eskatzaileak berariaz eta idatziz uko egin ezean, diru-laguntza onartutzat emango da.
- Bekaren lehen hiru hilabeteak igarotzean, lanaren garapenari buruz (egindakoa eta egiteko dagoena), aurkeztutako proiekturen arabera txosten bat bidaltzea.
- Irurako Udalaren esku jartzea egindako lanen ohar, zirriborro, aurrerapen eta emaitzak.
- Aurreikusetako planaren edo ikertaldearen osaketaren aldaketen berri ematea. Halakorik ezin izango da burutu Irurako Udalaren baimenik gabe.
- Bekaren bukaeran ikerlanaren azken erredakzioa aurkeztea word edo antzeko formato

informatiko editagarrian.

- f) Ikerlana entregatzeko azken epea betetzen ez bada, justifikazio edo gaintitu ezinezko arrazoirik gabe, penalizatu ahal izango da. Irurako udalak erabakiko du emandako arrazoiak nahikoak diren ala ez. Bekaren %8ko murrizketa egin ahal izango da, hil bakoitzeko atzerapenagatik.
- g) Lanaren luzerak DIN A4 tamainako 200.000 - 600.000 karaktere artekoa izan beharko du, Times New Roman, 12ko letra motarekin. Testua ez den elementu oro (argazki, grafiko, koadro, irudiak...) orrialdeetan zehar edo tokirik ez balego lanaren bukaeran, eranskin gisa, erantsiko da. Horrelako elementu bakoitzak behean bere azalpena izan beharko du. Nolanahi ere, idatzizko lanak gutxienez testuko 100 orrialde osoren baliokidea izan behar du. Eranskinetako orrialdeak ez dira kontuan hartuko puntu honetan zehaztutako gutxieneakoak betetzeko.
- h) Egileak 30 lerro inguruko laburpena eta edukiaren berri ematen dituen deskribatzaileak erantsiko ditu euskaraz gain, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez, aurreko paragrafoan zehaztutako letra eta tamainan.
- i) Bekaren iraupena gehienez 6 hilabetekoa izango da, beka adjudikatzen den egunetik.

Diruz lagundutako jarduera edozein delarik ere, antolatzaileak betebeharrak hau izango du: idatziz, ahoz edo irudi bidez eginiko iragarki guztietan Irurako Udalaren laguntzaren berri eman beharko du, haren logotipoa txertatuz (adb.: web, kartelak, sare sozialak...).

10.JUSTIFIKATZEKO EPEA eta MODUA.

Diru-laguntza justifikatzeko, elkarte edo pertsona onuradunak Irurako udaletxean eskatutako dokumentazioa aurkeztu beharko du 6 hilabeteko epean gehienez ere.

11.DIRU-LAGUNTZAREN ORDAINKETA

Diru-laguntza ematea onartu ondoren, ordainketa era honetan gauzatuko da:

1.go ordainketa: Onuraduna hautatua izan denean eta bere adostasuna jakinarazi duenean, ikerketa hasi aurretik 2.000€.

2.ordainketa: ikerketa lanaren aurkezpenarekin gainontzeko 3000€ak ordainduko dira.

12.XEDAPEN GEHIGARRIA

Oinarri-arau espezifiko hauetan berariaz jasotzen ez diren gai guztietan, deialdiaren oinarri-arauorokorrean xedatutakoari eta gainontzeko lege xedapenei jarraituko zaie.

Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Irura, 2024ko apirilaren 11. —Gorka Murua Macuso, alkatea.

AYUNTAMIENTO DE IRURA

Beca de investigación construyendo el modelo de cuidados en Irura. Bases específicas.

El pleno del este Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada con fecha 21 de marzo de 2024 aprobó las siguientes bases específicas:

1. OBJETO y NORMATIVA LEGAL.

1.1 Objetivos de las bases

El área de Igualdad del Ayuntamiento de Irura quiere realizar una beca de Investigación para analizar el área de cuidados actual en el municipio y definir el modelo de cuidados que se quiere construir de cara al futuro.

El objetivo principal de esta definición será analizar todas las dimensiones que actualmente estructuran el sistema de cuidados en el municipio y establecer las bases para la construcción de un modelo comunitario, sostenible y feminista que responda a las necesidades previstas a partir de aquí para el futuro.

Los cuidados son trabajos básicos para sostener la vida. Todos necesitamos ser cuidados y somos cuidadores en diferentes momentos de la vida. Las cadenas de cuidados sostienen nuestra familia, nuestra comunidad cercana, nuestra sociedad. En los últimos años se ha puesto de manifiesto la debilidad del sistema de cuidados vigente y su repercusión en nuestras vidas, en las de los más cercanos y en las del entorno. Por eso consideramos necesario hacer una pausa para analizar nuestro contexto e ir pensando y construyendo una estrategia que nos permita construir una estructura modelo de cuidados de cara al futuro.

Por ello, el Ayuntamiento de Irura con esta beca quiere conocer la realidad que vive el área de cuidados en el municipio y conocer los principales criterios para definir y fijar el modelo de cuidados a construir de cara al futuro.

- A día de hoy, realizar un análisis de la utilización y descripción de los recursos municipales disponibles para toda la ciudadanía en materia de cuidados en Irura.
- Hacer una descripción de los recursos existentes a nivel local más allá de la estructura municipal.
- Análisis de las necesidades actuales de la población de Irura en materia de cuidados (teniendo en cuenta las personas usuarias y no usuarias de los recursos de los que dispone el ayuntamiento).
- Realizar un análisis del ámbito de los cuidados a la población aplicando la perspectiva de género.
- Análisis de las vivencias y experiencias actuales de la población de Irura en materia de cuidados.
- Identificar las dimensiones propias del área de cuidados en Irura.

- Definición de las principales necesidades a futuro a nivel de cuidados en Irura.

- Definir los pormenores de una estructura tipo de cuidados capaz de dar respuesta a las necesidades del municipio a partir de una identificación de las mismas a nivel de cuidados.

1.2. Normativa aplicable

La regulación marco de esta beca será tenida en cuenta, por lo que la persona o asociación beneficiaria deberá respetar toda la normativa vigente que le sea de aplicación, y en particular:

- Ordenanza reguladora de subvenciones del Ayuntamiento de Irura, publicada en el BOG de 15 de julio de 2021, y su modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de 8 de junio de 2023.
- Plan Estratégico de subvenciones para Irura 2022-2024.
- Lo establecido en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Real Decreto 887/2006, de 21 de julio.
- Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la igualdad efectiva de mujeres y hombres.
- Texto refundido de la Ley para la igualdad de mujeres y hombres y la lucha contra la violencia machista contra las mujeres.

2. PRESUPUESTO.

El importe total de la beca convocada mediante el presente programa asciende a 5.000,00 euros, con cargo a la partida presupuestaria 1 0000.470.230.00.00 2024: Zaintza IKERKETA.

3. CONDICIONES DE PARTICIPACIÓN.

- a) Podrán optar a la beca tanto las personas individuales como los equipos de trabajo constituidos al efecto. En este segundo caso (grupos de personas físicas sin personalidad jurídica) se deberá nombrar un director o directora responsable del trabajo de investigación.
- b) Para acceder a la beca es requisito indispensable estar en posesión del grado o licenciatura universitaria de la rama de ciencias sociales. En el caso de los grupos, al menos la mitad deberá cumplir este requisito. Esta titulación será obligatoria para el Director o Directora del Trabajo de Investigación.
- c) Será obligatoria participar en el Plan Estratégico de Irura 2024-2034. Un proceso de reflexión basado en la participación ciudadana que servirá para reflexionar sobre el futuro de Irura.
- d) Las obras deberán ser originales, inéditas y creadas en euskera.

Asimismo, se deberá de cumplir con las condiciones del artículo 14 de la Ordenanza General de Irura.

No podrán acceder a las subvenciones las personas o entidades que, de acuerdo con la normativa vigente, tengan limitado o suprimido su derecho. Asimismo, no podrán acceder a las ayudas las personas sancionadas con la pérdida de este derecho por resolución definitiva, o que se hallen incurso en cualquiera de los supuestos contemplados en el artículo 13.2 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.

Personas físicas o jurídicas sancionadas administrativa, laboral o penalmente por vulneración del derecho a la igualdad y a la no discriminación por razón de sexo.

Personas físicas o jurídicas cuyos objetivos, sistemas de acceso, funcionamiento, trayectoria, actividad, organización o estatutos sean contrarios al principio de igualdad de mujeres y hombres.

A las personas físicas o jurídicas que no cumplan los requisitos establecidos en el Texto Refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Lucha contra la Violencia Machista contra las Mujeres y en la Ley Orgánica 3/2007, de 30 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres.

La entidad podrá acreditar, mediante testimonio judicial o certificación, que no está incurso en ninguna prohibición para obtener la condición de beneficiaria. Cuando no sea posible el acceso a dicha documentación, podrá sustituirse por una declaración responsable.

4. DOCUMENTACIÓN A PRESENTAR Y LUGAR DE PRESENTACIÓN.

Las solicitudes deberán presentarse en la Sede Electrónica del Ayuntamiento mediante las hojas de solicitud que a tal efecto establezca el Ayuntamiento. Asimismo, podrán presentarse en los lugares a que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las solicitudes para la obtención de la beca se dirigirán al órgano convocante de la misma y deberán ir firmadas por la persona beneficiaria o persona que le represente y deberán ir acompañadas de la siguiente documentación:

- Que se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y frente a la Seguridad Social. La acreditación podrá ser sustituida por la acreditación de la declaración responsable siempre que el solicitante se encuentre en alguno de los supuestos 24.e de la ordenanza municipal de subvenciones.

El proyecto que se presente deberá contener, de la forma más detallada posible (máximo 15 páginas), los siguientes apartados:

- Título
- Justificación del tema elegido
- Antecedentes y situación actual del tema.
- Objetivos
- Materiales y metodología, fuentes de acceso a la información
- Resultados previstos e interés de los mismos.
- Experiencia previa de la persona o grupo de investigación.

5. PLAZOS DE PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES.

Estas bases, una vez aprobadas por el Pleno del Ayuntamiento, serán remitidas a la DBNS y posteriormente publicadas en el BOG. Además de su publicación, se dará publicidad a las bases y convocatoria en la página web del Ayuntamiento de Irura. El plazo de presentación de proyectos será de un mes a partir del día siguiente de su publicación en el BOG.

Deberán entregarse de forma oficial, es decir:

.- Mediante la presentación en el registro oficial, debidamente cumplimentado y firmado, en la entrada del Ayuntamiento.

.- On-line, mediante el registro electrónico del Ayuntamiento www.irura.eus

Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla estuviera incompleta o defectuosa, se requerirá a los interesados para que, en un plazo de diez días naturales, contados a partir del día siguiente al de la recepción de la notificación, subsanen los defectos observados. Transcurrido dicho plazo sin haber procedido a la subsanación, se le tendrá por desistido de su petición, archivándose el procedimiento.

6. COMPATIBILIDAD CON OTRAS SUBVENCIONES

Las subvenciones reguladas en las presentes bases serán compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por otras instituciones en la ordenanza subvencional de Irura 8. Según lo establecido en el artículo.

7. COMPOSICIÓN Y FUNCIONES DEL TRIBUNAL.

Composición: el Jurado será el responsable político y técnico del área de Irura:

- Responsable Político del Área de Igualdad de Irura. Presidente del Tribunal
- Responsable político de los Servicios Sociales de Irura. Vocal
- Responsable Técnico de los Servicios Sociales de Irura. Vocal
- Secretario-Interventor de Irura. Secretario.

Además, el Tribunal podrá recabar la colaboración y asesoramiento de personas expertas en los temas que se planteen.

Tareas a realizar: analizar todas las solicitudes recibidas y elegir una de ellas. El jurado podrá declarar desierta la subvención cuando considere que los trabajos presentados no tienen la calidad necesaria.

La subvención será adjudicada por el Alcalde de Irura, a propuesta del Jurado. El acuerdo se notificará a todos los presentados.

Además del tribunal, desde el ayuntamiento se constituirá una comisión de seguimiento para poder canalizar las necesidades y adaptaciones a lo largo de todo el proceso de diagnóstico. Con el fin de garantizar la transversalidad, en esta Comisión de Seguimiento participará la Alcaldía.

8. CRITERIOS DE VALORACIÓN DE LAS SOLICITUDES.

Según los siguientes criterios:

CRITERIOS	PUNTUACIÓN MÁXIMA
Calidad técnica del proyecto (experiencia en la dinamización de grupos, técnicas innovadoras de recogida cualitativa de datos, etc.)	20
Proyectos que tengan en cuenta el enfoque interseccional: edad, raza, inmigración, identidad sexual y de género, diversidad funcional, pobreza y/o exclusión social.	5
Proyecto con perspectiva de género	10
Criterios lingüísticos	5
Criterios ambientales	5
Proyecto presentado por una asociación de mujeres	10
Que el empoderamiento de las mujeres o de las personas LGTBIQ+ sea un objetivo	5
Acciones de denuncia y reivindicación	5
Proyectos dirigidos a la difusión de los derechos, la historia y el pensamiento feminista de las mujeres, así como a la creación de referencias y genealogía de las mujeres.	10
Actuaciones con enfoque y finalidad coeducadora	10
Actividades de prevención y reparación de la violencia contra las mujeres	10
Proyectos que fomenten la participación de los hombres en la igualdad	5
TOTAL PUNTOS	100

Únicamente podrán ser subvencionados aquellos proyectos que obtengan, al menos, 50 puntos de la puntuación máxima, de acuerdo con los criterios anteriores.

Se propondrá a la persona solicitante con mayor puntuación para la adjudicación de la beca, y si ésta no aceptara la beca o no acreditara los méritos alegados se propondrá la siguiente. No obstante, el Tribunal podrá proponer la denegación de la beca cuando considere que la calidad de los trabajos no es suficiente.

9. OBLIGACIONES DEL BECARIO

- Si en el plazo de diez días hábiles tras la fecha de notificación de la concesión de la subvención la persona solicitante no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.
- Enviar al finalizar los tres primeros meses de beca un informe sobre el desarrollo del trabajo (realizado y pendiente de realizar) en función del proyecto presentado.
- Poner a disposición del Ayuntamiento de Irura las observaciones, borradores, avances y resultados de los trabajos realizados.

- d) Informar sobre las modificaciones en la composición del plan o grupo de investigación previsto. No podrá llevarse a cabo sin autorización del Ayuntamiento de Irura.
- e) Presentar al final de la beca la redacción final del trabajo de investigación en formato informático editable word o similar.
- f) El incumplimiento del plazo final de entrega de la investigación, sin justificación ni causa insuperable, podrá ser objeto de penalización. El ayuntamiento de Irura decidirá sobre la suficiencia de las razones alegadas. Se podrá hacer una reducción del 8% de la beca por retraso en cada mes.
- g) La longitud de la obra deberá estar comprendida entre 200.000 y 600.000 caracteres de tamaño DIN A4, Times New Roman, tipo de letra 12. Todo elemento que no sea texto (fotos, gráficos, cuadros, imágenes...), a lo largo de las páginas o si no hubiera sitio al final del trabajo, se adjuntará como anexo. Cada uno de estos elementos debe tener su explicación más abajo. En todo caso, el trabajo escrito debe ser como mínimo equivalente a 100 páginas completas del texto. Las páginas de los anexos no se tendrán en cuenta para el cumplimiento de los mínimos especificados en este punto.
- h) El autor o autora adjuntará, además del euskera, en castellano, francés e inglés, un resumen de alrededor de 30 líneas y descriptores de su contenido, en la letra y tamaño indicados en el párrafo anterior.
- i) La duración máxima de la beca será de 6 meses desde la fecha de adjudicación de la misma.

Cualquiera que sea la actividad subvencionada, la persona organizadora de la misma deberá hacer constar en todos los anuncios que la actividad ya sea por escrito, verbal o gráficamente que es subvencionada por el Ayuntamiento mediante la inserción de su logotipo (p.e.: web, carteles, redes sociales...).

10.PLAZO Y FORMA DE JUSTIFICACIÓN.

Para la justificación de la subvención la asociación o persona beneficiaria deberá presentar en el Ayuntamiento de Irura, en el plazo máximo de 6 meses, la documentación requerida.

11.PAGO DE LA SUBVENCIÓN

Una vez aprobada la concesión, el pago se realizará de la siguiente manera:

1er pago: Cuando el beneficiario ha sido seleccionado y ha comunicado su conformidad, 2.000 € antes del inicio de la investigación.

2º pago: con la presentación del trabajo de investigación se abonarán los 3.000 € restantes.

12.DISPOSICION ADICIONAL

En todo lo no previsto expresamente en las presentes bases específicas se estará a lo dispuesto en las bases generales de la convocatoria y demás disposiciones legales.

Publicar el presente acuerdo en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
Irura, 11 de abril de 2024.—El alcalde, Gorka Murua Macuso.